

Abian dira 2013-2014 Master Ofizialetako Sariak

2013/11/14

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak abian jarri du **2013-2014 Master Ofizialetako Sariak**. Lehiaketaren helburua da laguntzea doktorego bidean jartzen ikerketa ibilbidea aukeratu duten HUHEZIKo masterretako ikasleak, eta sendotzea, bide batez, HUHEZIKo doktorego ibilbidea bera.

Lehiaketan parte hartu ahal izango dute HUHEZIKo unibertsitate masterretan ikerketa ibilbidea hartu duten ikasle guztiak, eta saria irabaziz gero, **matrikulan ordaindutakoaren %100a berreskuratuko dute**. 2013-2014 ikasturtera mugatuko den lehiaketa honetan, **bi sari** banatuko dira.

Lehiaketan parte hartzeko baldintza bat dago: 2013-2014 ikasturtean, master ofizialetako ikerketa ibilbideko ECTS kreditu guztiak gaindituta izatea, MAP edo Master Amaierako Proiektuarenak barne.

Sariketan esku hartzeko interesatuta daudenak, **2014ko otsailaren 28ra** arte dute epea eskatutako dokumentazioa entregatzeko.

Lehiaketaren oinarriak eta informazioa guztia: [Ikerketa ibilbidunentzat Master Ofizialetako Sariak 2013-2014](#).

Aurten, hamar urte bete dira Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak abian jarri zuenetik hirugarren zikloko ikasketen eskaintza; izan ere, 2003-2004 ikasturtean ireki zuen HUHEZIKo doktoretza ibilbidea.



HUHEZIn aurkeztutako tesi bateko epaimahaikideak.